



-- Lan-legepeko negoziazio mahaian jarraitzeko STEE-EILASen arrazoiak --

GURE JARRERA

Lan-legepeko irakasle eta hezitzaileen negoziazio prozesu berri hau hasi zenetik (2013ko apirilaren 26an), STEE-EILAS sindikatuko ordezkariok oso argi izan ditugu bi gauza:

- 1. Gure helburua sektoreko langileentzako lan-baldintza hobek jasoko dituen hitzarmen berri baterako adostasunak lortzea zela. Atzerapausoa suposatzen duten baldintzak inolaz ere ezin ditugula onartu argi izanik.**
- 2. Eta horretarako, hitzarmen hori osatzen duten kolektiboetako langileei dagozkien arlo eta puntu guztiez hitz egin nahi genuela. Puntu guztiez.**

Eta horrela adierazi dugu behar izan den leku guztietan.

Hasieratik ere, sektore honen negoziazioak ez direla batere errazak kontzienteak izan gara. Horretaz konturatzeko azken hamar urteetan zenbat negoziazio antzuak egon diren ikusi baino ez dugu egin behar.

Hala eta guztiz ere, eta gure itxaropenak txikiak baziren ere, **gu beti prest azaldu gara:**

- gure ahalegin guztiak negoziazio hauetan jartzeko,
- kolektibo guztien aldarrikapenak (betikoak gehi azken urte hauetan jasan ditugun murrizketen ondorioz sortu direnak) modu argi, sendo eta irmo defendatzeko
- eta, behar diren bideak bilatzeko eta jorratzeko balizko adostasunak lortu ahal izateko.

ZER GERTATU DA NEGOZIAZIO HAUETAN?

Negoziazio hauetan, aurreko batzuetan gertatu den bezala, trabatu gara administrazioaren partetik gaindituezina ematen duen Hezkuntza Laguntzako espezialisten lanaldiaren puntuan.

Administrazioak helarazten digun onartezina den azken proposamenean argi ikusten da Administrazioak itzelezko ezgaitasuna azaltzen duela kolektibo honen langile guztien asteko lanaldia gehienez 37'5 ordukoa finkatzeko. (Hau izan zen, hain zuzen, 2011ko irailaren 14an sinatu zen aurreakordioaren urraketaren arrazoia)

Oztopo honen aurrean egonda, balizko bi irtenbide proposatzen dira:

- Lan talde bat sortzea Administrazioa eta sindikatuon artean egoera konkretuak aztertzeko. (Hau da Administrazioaren proposamena)
- Beste bide bat bilatzea guztion artean asteko lanaldi hori, gehienez 37'5 ordukoa, gauzatu ahal izateko. (STEE-EILASeko proposamena)

Gauzak horrela, bileran etenaldi txiki bat eginda, sindikatuak banan banan altxatu ziren.

GURE ERABAKIA

STEE-EILAS sindikatuko ordezkariok gure hasierako jarrera mantenduz, prest geunden ahaleginak egiteko oztopo hau gainditu ahal izateko. Eta mahaitik ez altxatzeko erabakia hartu genuen hurrengo arrazoiengatik:

1. Negoziazioetan, zoritxarrez, ia-ia beti aurkitzen dira oztopoak. Administrazioak, negoziazio prozesu honetan ere, hitzez azaldutako borondatea, paperera islatzeko gaitasun gutxi azaldu du. Honek frustrazioa baino ez du sortzen. HLE-en lanaldia gehienez 37,5 ordutan finkatzeko puntuak sortzen duen "ataskoa" gainditzeko administrazioak borondatea baino gehiago jarri behar duela argi dago.
2. Hala ere, hauek gainditzeko aukerak mahai gainean dauden bitartean, guk saiakerak egin behar ditugu hor gure aldarrikapenak jorratzen jarraitzeko. Gero ikusiko da alferrikako bideak izan diren edo ez, baina itxaropena badago, nahiz eta hau txikia izan, hori aprobetxatzea da gure langileekiko erantzukizuna.
3. Gure aldarrikapenen artean ez zegoen bakarrik puntu bat, ezta kolektibo bakar batenak ere. Mahaitik altxatzeak negoziazioak apurtzea suposatzen du eta gainontzeko aldarrikapen guztiak eztabaidatzeko aukera galtzea. Noiz izango dugu aukera gainontzeko kolektiboko (zeinu hizkuntzako interpreteak, terapeuta okupazionalak, fisioterapeutak...) langileen aldarrikapenak edo kolektibo honen (HLE) eta besteen, beste aldarrikapenak (ordezkoen kudeaketa, LZ areagotzea...) mahai gainean jartzeko?

ORAIN ZER?

Gaur egun negoziazio mahaia apurtuta badago ere, sektoreko langileen lan-baldintzak hobetzeko borrokan jarraitu behar dugula uste dugu. **Inondik inora ere ezin baititugu onartu:**

- 40 ordutako asteko lanaldiak,
- ezta asteko lanaldian joan-etorriak ez islatzea ere,
- ezta inposatzen dizkiguten murrizketak ere,
- ezta langileentzat txarrak diren beste edozein neurri edo lan-baldintzak ere.

Hori eta eta, momentu bakoitzean egoerak eskatzen dituen pausoak emateko prest gaude, orain arte bezala, langileekin bat eginez.

<p>ARABA Eulogio Serdán, 5. behea 01012 – Gasteiz Telf.: 945 14 1104 Email: araba@stee-eilas.org</p>	<p>BIZKAIA Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu) 48003 – Bilbo Telf.: 94 410 02 98 Email: bizkaia@stee-eilas.org</p>	<p>GIPUZKOA Baso-txiki, 30-34 (atzekaldea) 20006 – Donostia Telf.: 943 46 60 00 gipuzkoa@stee-eilas.org</p>	<p>NAFARROA Joaquin Beunza, 4 - 6 31014 – Iruñea (Rochapea) Telf.: 948 21 23 55 nafarroa@stee-eilas.org</p>
---	--	--	--